

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa bati ahalbidetzen diote eskaintzak garatzen, bezeroengana iristen, haiekin harremanak izaten eta diru-sarrerak sortzen. Baliabide honek fisikoak, ekonomikoak, intelektualak eta finantzak izan ahal dira. Adibidez, gure enpresako baliabide fisikoen barruan, kotxeak, lokala... aurkitu ahal ditzakegu.

Hasteko ezinbestekoa da kapitala izatea, hau da, dirua, eta asko. Hasiera batean, diru hori sozio bakoitzaren poltsikotik jartzeko intentzioa daukagu. Diru asko denez, bankueri laguntza eskatzea aukera bat dugu eta bestea, gobernuaren laguntzak lortzen ahalegintzea. Sozioez gain, beste hainbat langile beharko ditugu: finantza arlorako, muntaketarako, sare sozialetarako edo komunikabide publikoetarako eta marketinerako. Giza baliabideez gain, ezinbestekoak izango ditugu: ordenagailuak, lokal bat, muntaketarako makinakinak eta publizitatea egiteko kotxe-modeloak. Giza baliabideetara itzuliz, lanerako hautagaia izateko, ezinbestekoa izango dute, esperientzia, talde lanerako abilezia, ikasketak eta lehiakorak izatea.